

ELKARRIZKETA: MANU GOMEZ, ZINEMA ZUZENDARIA

ARKO

Arrasate

P R E S S

2000.eko
Irailaren 22a
509. zenb.

Punkiak, zinemagileak
eta grabaketa estudioak

IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • GURE ENPRESAK: LEINTZ GARRAIOAK
KIROLAK: MONDRA FUTBOL TALDEA • KULTURA: HOLIDAYS IN THE SUN



Ez dago inolako sekreturik gure Nissan 3+2 Excellent, 5 urteko Bermean. Hain gogotik egiten ditugu gure autoak, kilometro mugarik gabe* bost urtez bermatzen baititugu, jakin badakigulako, askoz gehiago iraungo dutela arazorik gabe. Baina, noski, azken orduko ezustekoren bat ere gerta daiteke auto jakin batean eta orduan ikusten da zein ona den gure bezero izatea modalitate honetan. Gutxieneko kostu batekin, edozer gauza gertatuta ere, babestuta egongo zara. Horregatik Nissan auto bat baduzu, zure hiru urteko berme estandarra bost urtera luzatzea eskaintzen dizugu. Abantaila handienak denborarik luzeenean goza ditzazun. Nahiz eta gero, ehun urtean, ez izan inongo arazorik.

Badaziku Zein Den Gure Autoen Bermea
Bost Urtera Luzatzeko Arrazoi Nagusia?

3+2=5+X

Badakigulako askoz gehiago iraungo dutela.

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 MONDRAGON-ARRASATE

*Kamioiak izan ezik. Trade y Cabstar E sartzen dira 300.000 km.ko mugareki



GIDATU ETA GOZATU

Debagoiena sortzen

Egunotan ikusi ahal izan dugu, nola eskualdeko herri-sarreretan panel adierazleak jarri dituzten, herriaren izena eta irudi batzuekin. Panelak berriak dira, baina ideia ez. Berria dena, eskualde-sarreretan Debagoiena adierazten duten panelak ere jarri izana da. Ez dut behintzat gogoratzen eskualdearen izena Deba Garaia izan den denboran, antzekorik egon denik.

Eskualdearen izen berria, Debagoiena, herritarrengan erraz sartu dela esango nuke. Orain, gainera, begibistan izango da haranzkoan eta honanzkoan. Baina, izen berriaz gain, uste dut eskualdearen izana ere tinkotzen ari dela.

Ikuspegi bizkorrean, Debagoiena eremu bakar edo nagusi duten ekimenak ugaltzen ari dira. Eskualdeko Ospitaleak,



Mikel Irizar

eraikin berria duenetik, gero eta hobeto betetzen du bere izenari dagokion funtzioa. Unibertsitateak hiru herrietan ditu dagoeneko fakultateak. Eroskiren hiperrak eta Urkuluko urtegiak elkarren ondoan jartzen dituzte sarri debagoiendarrak, eskualdeko plazarena eginaz. Kooperatibak ez dira eskualdera mugatzen, baina sekulako eragina izan dute

hemengo herri ezberdinetako pertsonen artean loturak sortzen, denboraren joanean harremanen lihoa iruten

duzenak. Datorren Garaia egitasmoa nazioartekoa izango da, baina tokikoa, eskualdekoa, ere bada. Tranbia arina izan omen dezakegu, laster errepidezko lotura azkarragoak ere bai. Bide batez, etxe honek, ARKOk, ere bultzatzen duen Goiena komunikazio enpresa eskualdea informazio-

eremu hartuta dator. Eta atzenduta geratuko zitzaizkidan beste hainbat eta hainbat kontu...

Badirudi aldeko faktore asko dituela eskualdekako antolamenduak. Neurri egokiena da hainbat zerbitzu garatzeko, herriak motz eta lurraldea zabalegi suertatzen direlako. Diotenez, 50.000 eta 100.000 tarteko giza multzoak behar bezain handi dira autonomo samar izateko eta, aldi berean, behar bezain bildu hurbiltasuna gordetzeko. Gogoratu Debagoienak 65.000 biztanle duela.

Eskualdea tinkotzeko joera honek aurrera egiten badu, eta egingo duela esan daiteke, udalerrien arteko bateratasunaz hausnarketa interesgarria ekarriko du. Eta Mankomunitatea legoke hausnarketa horren baitan. Demagun, Mankomunitatea indartzea dela teknikoki estratejiarik egokiena, eta berak hartu behar dituela industri garapenerako, edo etxebizitzaren eta errepideen plangintzarako eskumenak. Prest leudeke udalak eskumen horiei jaregiteko? Zein baldintzekin? Badago beste aukerarik? ■

Eskualdea tinkotzeko joera honek aurrera egiten badu, udalerrien bateratasunaz ausnarketa ekarriko du

“Beti iruditu zait Maider Egüesek aktore izateko balio duela. Ez nion garrantzirik eman esperientziarik ez izateari”.

Manu Gomez

7.627

sarrera saldu dituzte aurtengo udan Musakolako igerilekuetan.

Ekain, uztail, abuztu eta irailen sarrera erosi zutenen kopurua da hori. Eta ordenagailuak dioenez, abuztuaren eta irailen 6.780 sarrera saldu ziren, iaz baino bi gutxiago.

Kanpoko igerilekuak joan den ostiralean itxi zituzten.

AURKIBIDEA

- Ikuspegia 3
- Debagoiena sortzen
- Irakurlea idazle 4
- Inkesta 5
- Euren ikuspuntutik 6
- Justiziarik justizia eskatzen
- Asteko hitzorduak 8/9
- Astearren errepasoa 10
- Orain eta hemen 12/13
- Gure enpresak 14
- Leintz Garraioak
- Asteko gaia 16/17
- Rock doinuak, euskal labela duten doinuak
- Aurrez aurre 18/19
- Manu Gomez
- Txutxumtxuak 20/21
- Kirolak jokoan 22/23
- Kulturaren txokoa 24/26
- Ikusi eta entzun 27
- Azoka plaza 28
- Foto zaharra 30

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera eta Leire Kortabarria. **Publizitateak:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla, Arantza Arroabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzaileak:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gamizarrain, Ane Berzibar. (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Maddy Trubuelo. **Asteburuetako berriemakalariak:** Lorea Agiriano **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Karmele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Salla. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28).
©ARRASATE PRESS. Tirada: 6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddy Trubuelo.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igoalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deliak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Arrasate
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzaileak 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 71 17 31

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 22

• Zabala, Zarugalde

Larunbata, 23

• Ruiz, Maalako Errabala

Igandea, 24

• Morales, San Andres

Astelehena, 25

• Azkoaga, Ferrerías

Astearte, 26

• Azkoaga, Iturriotz

Asteazkena, 27

• Korkuera, Musakola

Osteguna, 28

• Irizar, Erguin

Aurtengo oporrak jadanik gehientsuenoi amaitu zaizkigu eta eguneroko bizi gordinera eta, era berean, bakoitzaren zereginetara itzultzea heldu zaigu; hori dela eta, opor hauetan euren jardunetan burumakur lanean aritzea tokatu zaien hainbat eta hainbat pertsonari denon izenean nire esker ona batetik, eta nire benetako mirespena bestetik, adierazi nahi diet, urtero-urtero, eta uda giroa heltzen den bakoitzean, burutzeraz heltzen diren lan aparta eta ezin hobegatik.

Erietxeetan lanean aritu diren mediku eta erizain guztiei, gertatu diren suteak itzaltzen ibili diren boluntario eta suhiltzaileei, itsasoko nahiz errepideko Gurutze Gorriko lantalde osoari, errepideetan inongo istripurik gerta ez dadin zaindari izan eta ibili diren hainbat ertzainei, batez ere gure Erkidego honetan; eta, azkenik, udan igerileku edo hondartzetan sorosle ibili diren guztiei eman nahi diet eskerrik.

Azken batean, azkenengo hauen beharra oraindik ere ez dago behar bezala baloraturik, eta hondartzara nahiz igerilekura sarridan joaten garenon aldetik, sekula santan ez diegulako egin beharko geniekene kasu zipitzik ere egiten euren esanei, eta batez ere, ondorioz horrela bukatzen direlako gertakizun eta istripu guztiak.

Beraz, berriz ere, nire eta guztion izenean, jaso ezazue gure eskerrik beroenatarikoa,

hain zuzen ere, udaldi bakoitzean gure zaindari izaten zaretenok, gure ongizatea eta onginahia desiatzearren.

Jaso ezazue, beraz, denok, gure aldetik besarkada handi eta bero bana.

Joseina Barrutiabengoa

Zuzenketak

Joan den astean, bi akats zeuden *Arrasate Pressen*. Batetik, txutxumutxuetan Uribarri auzoan egon zen dantza saio ikusgarria erakutsi genizuen, baina argazki hori Gatzagako jaietakoa zen eta ez Uribarrikoa. Uri-

barriko jaietakoa, tiratzaile ezin dotoreena zen.

Bestalde, Mondrako lehen erregionaleko nesken futbol taldeko aurkezpenean, Oihana Solupe beharreen, Oihana Sodupe idatzitzi genuen.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN

jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Nola konponduko zenuke ibaiaren kutsadura?

Deba ibaia da Gipuzkoako zikinena, Gipuzkoako Foru Aldundiak esan duenez



Dorleta Rodriguez
(18 urte)
Ikaslea

Lantegietan araztegiak jarri beharko lituzkete. Baina, herri-tarrok ere oso zikinak gara.



Beatriz Jimenez
(36 urte)
Langilea

Enpresek hondakinak ibai-
ra isurtzeari utzi beharko lio-
kete, eurak dira-eta errudun
nagusiak.



Karmen Usandizaga
(50 urte)
Langilea

Enpresak dira gehien zikin-
tzen dutenak, baina geu ere oso
zikinak gara, eta hondakinak
ibaira botatzen ditugu.



Felipe Palomo
(63 urte)
Erretiratua

Zikintzen duten enpresak
ikertu eta zigortu beharko lira-
teke. Herriarrek ere ibaia erres-
petatu beharko genuke.



Alberto Vazquez
(18 urte)
Ikaslea

Araztegiak ipini eta kutsa-
tzen duten lantegiei isunak
jarri.



Carlos Baquedano
(54 urte)
Langilea

Jendea eta enpresak ibaiari
egiten zaion kalteaz kon-
tzientziatu beharko lirateke.



Antxon Etxenagusia
(43 urte)
Langilea

Araztegiak garrantzitsuak
dira, baina herritarrok ere ez
genuke zikinkeriarik bota
beharko.



Conrada Olivenza
(50 urte)
Langilea

Penagarria da ibaiaren ego-
era. Hor guztiok egin beharko
genuke zer edo zer, agudo gai-
nera, ez dugulako ezertxo ere
zaintzen.

... **LILURIA** ...
OIHALAK
Denboraz prestatu
Maritxurako jantzia
Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.: 943 - 79 89 72

TXIRRIÑA
Taberna
Garagardo ona
Giro hobea
Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35



USTEAK USTE

Olinpiar Jokoak

Olinpiar Jokoak direla eta, guztiok pozten gara kirolariek lortzen dituzten marka ikusgarriekin. Asteazken eguerdian, esaterako, emakumezkoen 200 m tximeleta proba ikusi nuen. Bazkaltzen nengoen eta zapping egin beharrean horixe ikusten gelditu nintzen. Eta hara non eta amerikar batek sekulako marka egin eta urrea eskuratu zuen. Eta ni, berriz, nire pisukidearekin batera, pozik. Beste buruhauste guztiak ahaztu nituen une horretan. Gertukoren batek irabazi izango balu, ez dakit...

Nola daiteke denon denon telebistari begira egotea, horrek ezkututzen duena gogora ekarri barik?(eta ez da kirolariei inongo meriturik kentzeagatik; dena ematen dute eta gero zer?). Herrialde guztiek inbertitzen dute hor egoteagatik eta Jokoetarako azpiegituretan inbertitzen dena ere...

Eta gero ginear batek igeri egiten ikasten du Olinpiar Jokoetara joateko eta ia ito egiten da amaitu barik. Meritua berak bai... Eta merezi al dute horrelakoak?

Marijo Deogracias



Justiziari justizia eskatuz

* Oskar Elizburu

Justizian euskara erabiltzeko beharra eta eskubidea aspaldiko kontua dugun arren, puri-purian jarri gura genukeen gaia da oraingoan, herritarrok geure aletxo jar dezagun helburua bete nahi horretan. Iaz Arrasateko hainbat erakunde elkartuta, plataforma bat eratu genuen erreibindikazio honi indarra eman nahian. Urtean zehar hainbatekitaldi antolatu ziren. Sinadura bilketa bati ekin genion epaitegiari euskararen erabilera bermatzeko eskatuz, bildutakoak bertara eraman genuen eta epaitegikoekin gaia aztertu. Epaitegi aurrean euskalgintzako hainbat talde bildu ginen pankarta bat hartuta "Justizia euskararentzat" lelopean eta aipatzeko epaile euskaldun batek emaniko hitzaldia, epaitegietan euskararen erabileran zegoen eta egun ere zoritxarrez dugun egoera kaskarra azalduz.

Orain arteko mobilizazio guztiak erreibindikazio mailakoak izan dira; hau da, epaitegiari orokorrean zein epailei

ei beraiei euskara erabiltzeko eskaria egin zaie denok dugun euskara erabiltzeko eskubidea benetakoa izan dadin, baina hori ez dugu nahikoa eta oraingoan maila pertsonaleko deia egin gura dizuegu lerro hauen bidez, denon beharra dago-eta.

Batek baino gehiagok galdetuko zion bere buruari aurreko aste hauetan: Zer demontre izango ote da 1.000 baietz karteltxo horrek dioena? Garaia dugu, bada, dena azaltzeko: 1.000 pertsonaren konpromisoa lortu gura genuke, hemendik aurrera epaitegiarekiko izango dituzten jakinarazpen, tramite eta edozein harremanetan EUSKARA hizkuntza erabil dadin. Horre-

1.000 konpromiso lortu gura genuen epaitegiarekiko harremanak euskaraz izateko

la izateko eskubidea dugula argi eta garbi dago, izan ere, Euskara hizkuntza ofiziala dugu Justizia Administrazioarako ere. Legeak berak dioenez, inor ezin daiteke bere hizkuntzagaratik diskriminatu edo baztertu ezta itzulpena exijitu ere, nahiz eta askotan hori gertatu egoera tamalgarrria dugulako.

Eta nola egingo dugu eskaera hau? Erraza da lagunok! zuen etxeetan jasoko duzue papera: zeun datuak jarri eta Seber Altuben irailaren 23, 24 eta 30ean zein urriaren leian jarriko ditugun mahaietara ekarri, (11:00-15:00; 19:00-21:00). Paperak betetzeko aukera mahaietan bertan ere izango duzue eta edozein azalpenerako bertan izango gaituzue.

Oraingoan guri konpromisoa eskatzen zaigu; aurreko kanpainetan epaileei eskatu zaie konpromisoa, baina ez al diegu presio handiagoa egingo geure burua konpromiso horretan jartzen badugu? Guk geuk konpromisoa hartuko bagenu, zailtasunak zailtasun, euskararen erabileraren beharra argi erakutsiko genieke epaileei beraiei, bezero garen heinean gure beharretara moldatzeko ahalegina egin beharko dutelarik. Nik neuk hara eramango dut eta zeuen zain izango nauzue justiziari justizia eskatzeko.

1.000 eskari baietz Arrasaten!

* Justiziari justizia ekimeneko kidea



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6 (Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebeldun hizkiak



ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea (Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

ARGI ETA GARBI

Etxeko Langilea:

Defenda itzazu zure Eskubideak!

ATH-ELE

Etxeko Langileen Elkartea
Arrasateko Udaleko Emakume Saila

SOLDATA 2000

Ordu kopurua (astean)	Gizarte Segurantzaz gabe	Gizarte Segurantzarekin
--------------------------	-----------------------------	----------------------------

40	70.680 pta.	67.489 pta.
39	68.913 pta.	65.722 pta.
38	67.146 pta.	63.955 pta.
37	65.379 pta.	62.188 pta.
36	63.612 pta.	60.421 pta.
35	61.845 pta.	58.654 pta.
34	60.078 pta.	56.887 pta.
33	58.311 pta.	55.120 pta.
32	56.544 pta.	53.353 pta.
31	54.777 pta.	51.486 pta.
30	53.010 pta.	49.819 pta.
29	51.243 pta.	48.052 pta.
28	49.476 pta.	46.285 pta.
27	47.709 pta.	44.518 pta.
26	45.942 pta.	42.751 pta.
25	44.175 pta.	40.984 pta.
24	42.408 pta.	39.217 pta.
23	40.641 pta.	37.450 pta.
22	38.874 pta.	35.683 pta.
21	37.107 pta.	33.916 pta.
20	35.340 pta.	32.149 pta.

URTEKO GUTXIENeko

SOLDATA 40 ORDU: 989.520 pta.

(12 hilabeteko soldata
eta 2 estra 70.680 pezetakoak)

GIZARTE SEGURANTZAREN

KOTIZAZIOA: 18.975 pta.

• Kontratatzailearen kontura 15.784 pta.

• Langilearen kontura 3.191 pta.

Kotizaziorako oinarria: 86.250 pta.

- Hemen adierazitako soldatak gutxienekoak dira, kontratatzailearen aldetik hobetu daitezke.
- Eskatu nomina, kontratua exijitu.
- Gizarte Segurantzaz altan ez egon arren, zure eskubideak defenda itzazu.
- Paga estrak 30 egunekoak dira.
- Oporretako hilabetea ordaindua izan beharko da.
- Astean 20 ordu edo gehiago lan eginez gero, Gizarte Segurantzaz alta eman beharra daukate.
- Alarguntza pentsioa jasotzen baduzu ere, Gizarte Segurantzaz kotizatu baduzu zure erretiro pentsioa kobratzeko eskubidea izango duzu.

Informazio gehiago, Arrasateko Udaleko Emakume Sailean: deitu 943 79 09 00 edo eta 943 79 41 39 telefonoetara. Gerturatu Arrasateko Udaletxera, herriko plazara. Helbide elektronikoa: emakume@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■

ATH-ELE

22

ostirala

■ ZINEMA

El Hombre sin Sombra, 19:30 - 22:00, Alai zineman. 13 urtetik aurrera.

■ PELLO ZABALA ARAMAION

Tenporen inguruko hitzaldia emango du Pello Zabalak Aramaioko Udaletzeko Pleno Aretoan. 19:00.

23

larunbata

■ ZINEMA

El Hombre sin Sombra, 17:00 - 19:30 - 22:00, Alai zineman. 13 urtetik aurrera.

■ JAIALDIA ARAMAION

Aramaioko Txirritola elkarteak jaialdia antolatu du. 12:30ean, txikiteoa; 14:30ean, herri bazkaria; ondoren, animazioa ume eta helduentzat. Elkartearen elastikoak salgai ipiniko dira jaialdian.

■ RUPER ORDORIKA

Ruper Ordorikak musika emanaldia eskainiko du Oñatiko Santa Ana antzokian, 22:30ean.

24

igandea

■ ZINEMA

El Hombre sin Sombra, 17:00 - 19:30 - 22:00, Alai zineman. 13 urtetik aurrera.

■ KONTZERTUA KIROLDEGIAN

In Flames, Dark Tranquility, Sentenced eta *To Die For* taldeen kontzertua izango da Musakolako Kiroldegian, 20:00etan.

25

astelehena

■ ZINEMA

El Hombre sin Sombra, 19:00 - 21:30, Alai zineman. 13 urtetik gora.

26

asteartea

■ ZINEMA

El Hombre sin Sombra, 19:00 - 21:30, Alai zineman. 13 urtetik aurrera. Ikuslearen eguna.

Eskulanak

Noiz: irailaren 26tik abenduaren 19ra
 Non: Ekin Emakumeak elkartearen egoitzan
 Ordutegia: asteartero 15:30ean eta 18:00etan
 Emalea: Mila Akizu
 Gaiak: • Egurra (landu, birziklatu, tarazea, ...)
 • Laminak
 • Margoketa (egurrean, zeramikan, ehunetan, ...)
 • Van Daal
 • Panpinak
 • Eztainua eta zilarra
 • Beruna eta zilarra
 • ...


Jzenematea: elkartean bertan, irailaren 25a baino lehen

Antolatzailea:



Ekin Emakumeak
 Pablo Uranga, 6 behea
 20.500 ARRASATE
 Tel.: 943 77 12 28

Laguntzaileak:



ARRASATEKO UDALA



Emakunde Salla



Gizonak
 Emakumeak



2001.eko
 udazken
 neguko
 denboraldia

Erdiko kale, 32
 ARRASATE
 Tel.: 943 79 16 12

Yoga tailerra eta ikastaroak

Yoga eta Natura'enea (J.Luis Iñarra 28 eta 18), zapatuan

- **10:00-14:00**, erretiratuentzako yoga, gimnasia bioenergetikoa eta norbere buruaren zainketa..
- **17:00**, masaje psiko-sentsitiboa.

Bestalde, bi lantalde antolatu ditu Sadhana yoga zentroak. Argibideak: 943 79 88 53.

Gorputzeko lan taldea: estiramenduak, arnasketa, bioenergetika. Hasiera: Irailak 27, 18:30.

Topaketa Pertsonal taldea: talde dinamikak, aholkularitza psikologikoa... Hasiera: irailak 29, 18:30.

■ **UDALAREN BI OHAR**
Zabalik dago, azaroaren 10a arte, aurtengo jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea. Bestalde, urriaren 15era arte ordaindu ahal izango da aurtengo 2. hiruhilabete-ko ur eta zabor tasa.

■ **MUSIKA ESKOLA**
Jesusi Etxebarria musika eskolak irailaren 29ra arte izango du zabalik matrikula epea. Izena emateko: 17:00-21:00 akademian, edo 22:00etatik aurrera 943 79 17 67 telefonoan.

■ **INSTALAZIOEN ZOZKETA**
Uarkape, Musakola eta Iturripeko instalazioak alokatu nahi dutenek bilera izango dute. Irailaren 27an, Musakolan, 18:00etan.

■ **IGERIKETA EGOKITUA**
Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako igeriketa egokitu zerbitzua hasi du Debagoieneko kirol sailak. Argibideak: 943771677, Fernando Aguriondo.

■ **GAZTELARA EKINEKIN**
Urriaren 12, 13 eta 14rako, Salamanca, Segovia eta Avilara bidaia antolatu du Ekin Emakume Elkarteak. Izen ematea, urriaren 3ra arte. Argibideak: 943 77 12 28 telefonoan.

■ **KATEKESIA**
Honako egunetan hasiko da Katekesia: astelehenean, 2. maila; eguaztenean, 4., 5. eta 6. mailak; eta eguenean, 3. maila. Lehen maila urrian hasiko da. Matrikulazioa irailaren 25 eta 26an egin ahal izango da, Katekesiko lokalean.

■ **GIMNASIA TALDEA**
Arrasate Gimnasia Taldeak zabalik ditu ateak parte hartu nahi dutenentzat. Baldintza bakarra, 1995. urtean edo lehenago jaiotakoa izatea. Telefonoa: 610 20 50 71.

■ **WING TSUN**
Arrasateko Wing Tsun taldeak hasi berri du ikasturtea. Beti Ona gimnasioan, Uribarrin, elkartuko dira, martitzen

eta egunetan 19:30-20:30, eta egubakoitzetan, 18:30-20:30. Argibideak: 610 90 26 30 telefonoan.

■ **BERTSO ESKOLA**
Irailaren 29an amaituko da AEDren bertso eskolako izena emateko epea. 3.500 pezeta kostatzen da matrikula.

Elikaduraz berbetan

MONTERRON, 16:30

Martitzena, 26
"Janarien segurtasuna gaur egun", Cinta Pizarro.

Eguaztena, 27
"Janari transgenikoak. Zer dira?", Anabel Tueros.

Eguena, 28
"Mediterraneoko dieta. Zer da eta zer onura ditu?", Cinta Pizarro.

zuekin eta zuentzat

www.loramendikirolak.com

ausartu eta sartu!!

astea bi hitzetan

■ **Protestak**

Pasa den ostegun eta ostiralean, protestak izan ziren Mondragoen, Euskal Herrian egin ziren atxiloketak salatzeko. Ostegunean, adibidez, kale agerraldia egin zen; ostiralerako, berriz, borroka eguna deitu zen eta eguerdian hainbat ikaslek kale agerraldia egin zuten.

■ **Atentatua gaitzesteko**

Astelehenean, Lehendakariak egindako deiari jarraituz, Jose Ramon Rekalderen kontrako atentatua gaitzesteko geldialdia egin zen hezkuntzan. Mondragoen ez

zuen erantzun handiegirik lortu; izan ere, bakarrik La Merced eta San Andres eskolatan egin zuten ordu laurdenerako lanuztea.

■ **224 likore botila**

Pasa den asteazken eta ostiralean, bi emakume 224 likore botila lapurtzen saiatu ziren Musakolako Eroskin. Asteazkenean, 127 botila eraman zituzten; gurdia bete, libre zegoen kutxa batetik irten eta ospa egin zuten. Ostegunean, berriz, 97 botila hartu eta ihes egitera zihozazenean, atxilotu egin zituzten. Guztira, 400.000 peze-

ta baino gehiago eraman behar zituzten.

■ **Ikasleentzat ostatua**

Gesalibarko Txirrita ostatuan ikasleentzako egoitza egin nahi da. Kontua da, gaur egun, Biteri Ikastetxe Nagusian ez dagoela etorriko diren ikasle guztientzako lekua.

Horren adierazle da, dagoeneko Txirrita ostatura 60 bat ikaslek deitu dutela, baina 34rentzako tokia baino ez da egongo. 14 logela egongo lirake eta hainbat gela berezi. Hala ere, oraindik gauzak zehazteko daude.

■ **Plan gerontologikoa**

Datozen lau urteotan Gipuzkoako zaharren beharrak asetzeko plan gerontologikoaren zirriborroa aurkeztu zen pasa den ostegunean. Gipuzkoako Foru Aldundiak egin zuen aurkezpena; entzuleen tokian, berriz, Deba-goieneko udal ordezkari eta teknikariak egon ziren. Ezarri nahi diren ildo nagusiak dira: pertsona nagusia ahalik eta denbora gehien bere etxean bizi ahal izatea eta beste bizitoki moduak (etxebizitza komunitarioak, elkarbizitza etxebizitzak...) bultzatzea.



“ Ni sartu nintzenean, 30 langile ginen, orain 130, Arrasaten. Beste hiru enpresa ditugu Italian, Mexikon eta Argentinan. Anaiak batzuetan esaten dit hobe zela garai batean bezala, jende gutxi eta denak elkarren ezagun, baina tira. Hala ere, harreman oso onak ditugu langileekin. Agian horregatik ez dugu sindikaturik lantegian, langileek ez dute nahi izan”.

IGOR ALTUNA

HABE

2000ko iraila

Dermatologia kontsulta

Concepcion Tamayo Dk. • Jesus Sampedro Madina Dk.

■ **Azaleko**

Gaixotasunak

(Lagun-Aro, IQJIMESA-Adeslas, Diputazioa, Asisa, Sanitas eta Ipresa aseguruak hartzen ditugu, baita partikularak ere).

■ **Mantxa marroiak**

- Adinak eta eguzkiak eragindakoak.


■ **Kouperosia**

■ **Fotodepilazioa**

(Laserra)

- Medikuak kontrolatua.
- Emakumezko eta gizonezkoentzat.
- Ile normala eta hormona arazoaren ondoriozkoa tratatzeko.

Maalako Errabala, 23/2-A • Tel.: 943 77 05 57 • Arrasate-Mondragon
Atzeko Kalea, 6 beheka • Tel.: 943 71 61 82 • Oñati




1.000 Baietz kanpaina abian

AEK, AED eta EHE elkarteek hasi duten kanpaina. Justizia administrazioarekin izan beharreko harremanak euskaraz izan daitezela eskatzeko kanpaina da eta horretarako 1.000 sinadura eskatuko dituzte.

Seber Altuben batuko dira sinadurak, asteburu honetan aurrenekoak eta datorren zapatu eta igandean gehiago; goizez eta arratsaldez arituko dira sinadurak batzen, 11:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Gaur bertan 6.500 sinadura orri banatuko dira Arrasaten. Eredu moduan, aipatutako hiru elkarteetako kideek prentsaurrean sinatu dituzte orri hauek.



URTEBETE ESKATZEN

Orain dela urtebete hasi ziren justizia administrazioan euskaraz erabili ahal izateko eskubidea aldarrikatzen.

Ordutik salaketa kanpainarekin batera, 6 puntuko

mozioa aurkeztu zuten udal-txean eta normalkuntzarako oinarriak finkatzeko kanpaina ere egin dute. Hala ere, hori dena ez omen da nahikoa eta "1.000 baietz" kanpainari ekin diote hiru elkarteek.

Etxez etxeko laguntza aztergai

Udaleko gizarte zerbitzuek eskatuta, Arrasateko Udalak etxez etxeko laguntza zerbitzuari buruzko hausnarketa egitea erabaki du. Kontua da, sortu zenetik hona (10 urte), zerbitzua hamar bider handiagoa dela eta, jakina, bere kostua ere gero eta handiagoa dela. Urtero-urtero defizitak gora egin du etengabe; pasaden urtean 60 milioi pezeta pasatxokoa izan zen. Orain arte, udala egin da defizitaren kargu, baina laster ezin izango dio aurre egin. Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero ematen duen diru laguntza ere

gero eta handiagoa da, baina horrek ere badu bere muga.

Baina, horrekin batera, etxez etxeko laguntza zerbitzua erakunde publikoek eskaini beharreko zerbitzua da, autonomia galera jakin batzuk dituzten pertsonen laguntzeko.

Hau guztia jakinda, udalak ikusi du behar-beharrezkoa dela egoera aztertzea, etorkizunean zerbitzua nola eman behar den jakiteko. Hausnarketa horrekin haste-ko, lehenengo, gaur egungo zerbitzua nola ematen den aztertuko da.

Hezurtegia egiten

San Kristobal hilerri-ko hezurtegia egiten hasi da Mondragoeko Udala, hau da, hamar urteren ondoren hilobietatik ateratzen diren hezurak botatzeko toki bat. 3.267.108 pezetako aurrekontuarekin, Canas Esteban Eraikuntzak enpresa arduratuko da lanok egiteaz.

Lanak bukatu artean, orain arteko hezurtegiak bere horretan funtzionatu du.

EAJ ez da itzuliko

EAJ alderdiak idatzi batean adierazi duenez, ez da gobernu batzordera itzuliko. Modu horretan erantzun dio EH, EA, eta EB alderdiek, besteak beste, udal gobernuazko erabakia berriz pentsatzeko egingadako eskaerari.

EAJren ustez, "EH-k ETAK egiten dituen hilketak salatzen ez dituela, eta gera daitezen saiatzen ez dela ikusita, ez dira gobernu akordioaren baldintzak betetzen". Mondragoeko Euzko Alderdi Jeltzaleak gaineratu duenez, "ETAK su-etena apurtu ondoren, ez zen arrazoirik geratzen EH-rekin gobernu batzordean jarraitzeko, eta bai oposizioa pasatzeko. ETAK Lizarra-Garaziko Akordioaren funtsezko puntu bat apurtu du: ekintza biolentoen eza".

LANEAN JARRAITZEKO

Horrekin batera, EAJk adierazi du Arrasateko herritarren alde lan egiten segitzeko asmoa duela eta arazoak konpondu nahi dituela.

Edozein indar politiko edo gizarte ordezkariarekin hitz egiteko prest dagoela gaineratu du, baina "ez egungo postulatua hauekin eta are gutxiago komunikabideen bitartez. Arazoak konpondu nahi ditugu eta herri honen alde lan egin, inolaz ere joko alderdikoi propagandazaleetan parte hartuz".

Azken etxebizitzak salgai Antzuolan

90m² erabilgarriak
EZ GALDU AUKERA HAU!!

20.000.000 PTA

Lehen mailako materialekin egina. Leku ezin hobea.
Informazioa eta salmenta: **KOROSTI INMOBILIARIA.**
Tel.: 943 73 05 25



Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

*Maritxu gau bereziko
orrazkerarik ederrena*

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

Auzitegiatarako epaimahaia

Datorren irailaren 26an auzitegiarako epaimahai berriak zozketatuko dira. 18 urteko gorako gipuzkoarren artean egingo da hautaketa, eta auzitegiatutakoak datozen bi urteetan epaimahaikide izango da.

Mondragoen herritarren errolda udaletxean dago. Donostiara bidalia izateko zain.

Zozketaren emaitzak azaroan jasoko ditugu; tokatu zaionari etxera helduko zaio abisua. Ondoren, hamabost eguneko epea dago erreklamazioak egiteko. Izan ere, badaude epaimahaikide izateko bete beharreko baldintza batzuk, adibidez, irakurtzen eta idazten jakitea, 65 urteko gorakoa ez izatea edota delitu baten salaketarik ez edukitzea.

Inbertsioak Luzuriagan

Tafallako Luzuriaga plantan, 4.500 milioi pasatxoko inbertsioa egingo du Mondragon Kooperatiba Korporazioak 2001-2004 urteen artean.

MCCko arduradunek esan dutenez, galdategirako lau proiektu berri finkatu dira eta enpresari eta langileei etorkizuna bermatu zaie.

Neurri hauekin, bada, badi-rudi konpondu egin direla zuzendaritza eta langileen artean izan diren ika-mikak.

Beste biribil bat eta etxe gehiago

IFAMen lursaila badoa itxuratzeko, gero egingo diren etxebizitza eta bestelakoak eraiki ahal izateko. Dagoeneko bota dute lantegi zaharra eta orain eraikin berriak egiteko lurra prestatzen ari dira. Guztira, 136 etxebizitza eraikio dira gune horretan, 6 bloketan banatuta. Horrez gain, Arrasateko Udalak ere aste honetan onartu du etxebizitzekin batera egin beharreko urbanizazio lanak. Besteak beste, Musakolatik datorren Antso Abarca kalea luzatu egingo da etxebizitza berriak zeharkatuz; apurtxo bat gorago gauza bera egingo da Elkano kalearekin. Bestalde, etxeen artean parke bat eraikiko da eta, horrez gain, Oñati Kalea, Gipuzkoa Etorbidea eta A-20 elkartzen diren tokian beste biribil bat egingo da. Horrekin batera,



IFAMeko etxebizitza berrien maketa bat.

jakina, beharrezko azpiegitura eta bestelakoak ere sartuko dira. Hau dena egiteko, udalak ia 220 milioi pezeta inbertituko ditu.

ETXE BERRIAK

Bestalde, IFAMeko lurretan eraiki behar diren 136 etxebizitzetaz gain, gerora begira,

horien atzealdean (Elkano kalearen goiko aldean) etxebizitza gehiago eraikitzea aurrez ikusi du udalak. Oraindik ez dago gauza handirik zehaztuta, baina, behintzat, etxebizitza gehiago egiteko egitasmoa abian da, hain zuzen ere promozioa prestatzen ari dira.

Beasain-Durango egiteko beharra

Mankomunitateak Beasain-Durango errepidea lehenbailehen egiteko eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Bailara honek jasaten duen isolamendua salatu eta gero, Mankomunitatearen ustez, Beasain-Durango ardatzak zuzenean erantzuten die hemengo beharrei.

Horrez gain, papera eta kartoia dendaz dena jasotzeko zerbitzu baten azterketa egitea ere erabaki da. Merkatariek horrelako zerbitzu baterako duten beharra gero

eta handiagoa dela jakinda erabaki da azterketa egitea. Era berean, lur azpitik sartu beharreko harietako buruzko beste ikerketa bat ere egingo da. Telefonía eta telebista zerbitzu berriek horrelako eskarrik egiten hasi dira eta bailarako udalek aztertu egin behar dute baimen horiek nola eta zein baldintzatan eman.

Bestalde, Zubillagako hiltegiaren abantailak eta desabantailak parekatu eta horren arabera hiltegia itxi edo ez itxi ere erabakiko da.

Autobus-bonuak

Pasa den ostegunean hasi behar ziren saltzen herri autobuserako bonuak; data hori, baina, datorren hilaren 2ra arte atzeratu da. Autobusaren kudeaketaz arduratzen den Leintz Garraioak enpresak adierazi digunez, Euroa datorrela eta, gerora egokitzapenak egin beharko dira autobus-bonuetan; horren aurrean, beharrezko aldaketak orain egitea erabaki dute eta bonua prest uztea. 8.000 bonu jarriko dira salgai datorren urriaren 2an.

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Maritxu Kajoi
egunerako makilatu eta orraztu
3.300 ptatik aurrera

ZATOZ!

Maalako Errabala, 21-B
ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

Udazkeneko
eta neguko
arroparik
berriena
zuretzat prest



ARRASATE
KIROLAK

Kontzeziño, 8
ARRASATE
Tel: 943 79 46 12

californian free thinking

**THINK
PINK**

*G*reat way of climbing
Think Pink was born in
Yosemite National Park to
relax your mind and under-
stand nature.

happy to be there

Leitz Garraioak: autobusak bizibide

Azken egunotan aski ezaguna egin zaigu herri autobusa. Duda barik, herritar askori zerbitzua eskainiko dion autobusa izango da. Udalak asmatu du autobusa ipintzea eta udalak berak bultzatu du, baina kudeaketa beste esku batzuetan dago: Leitz Garraioak SL enpresarenean, hain zuzen ere; herri autobusaren zerbitzua eskaintzeko jaio den enpresa da hauxe. Irailaren 1ean ekin zion bere ibilbideari zazpi langilerekin, horien artean, bost gidari, idazkari bat eta enpresaren arduraduna.

Egoitza, berriz, Araba Etorbidean kokatu du. Hantxe gordeko dira autobusak 300 metro karratuko garajeetan bertan egingo dira beharrezko konponketak eta bestelakoak.



Enpresa berriak oraindik ez du egin hilabete lanean.

HEDATZEN

Mondragoeko autobusaren zerbitzuaz arduratzeaz gain, parean tokatuz gero, bestelako zerbitzuak eskaintzeko

asmoa ere badu Leitz Garraioak enpresak. Halaxe adierazi digu Angel Marcok, enpresako gerenteak. Are gehiago, kontatu digunez,

dagoeneko hasi da Bilbo aldean lanean; hain zuzen ere, Bilbotik Zornotzarainoko bidea egiten ari da, enpresa pribatu bati zerbitzua emateko.

ETORKIZUNA

Hala ere, enpresa berri horren helburua Mondragoen tinko finkatzea da. "Urbanoak ondo funtziona dezan nahi dugu eta mondragoetarrak konforme eta pozik egotea. Sortuko diren arazoak konpontzen joan, egin beharreko aldaketak egin... Oraingoz, Mondragoen dugu burua, gero geroakoak".

Dena dela, gaineratu digunez, eskualde honetan bada-go zerbitzu berri eta hobeak eskaintzerik eta etorkizunera begira, posible ikusten da zer-bait gehiago eskaintzea.

"GAZTEAK ETA ARRAZAKERIA" XI. ARGAZKI LEHIAKETA



Fernando Gomez Larrea. Trapagaran (Bizkaia)

BI KATEGORIA

- A) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak
- B) 19-35 urte bitarteko edozein

SARIAK

- A) **kategoria:** (modalitatea bereiztu gabe)
 - 1. saria: argazki makina (reflex)
 - 2. saria: argazki makina (konpaktoa)
- B) **kategoria:**
 - zuri-beltzean
 - bildumarik onena: 75.000 PTA
 - argazkirik onena: 50.000 PTA
 - koloretan
 - bildumarik onena: 75.000 PTA
 - argazkirik onena: 50.000 PTA

Emakume Sailaren saria: 50.000 PTA

Lanak
aurkezteko epea:
URRIAK 11



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Sails ■
Emakume Sails ■

Informazio gehiago eta arauak Gazte Bulegoan • Tel.: 943 77 00 65

ERDU AEK

Euskaltegian

euskara ikastaroak

izena emateko epea: irailak 27

Maila guztiak
EGA eta
ALFABETATZEA

✓ udalaren
laguntzaz

✓ beka
sistema

æek

Bulego ordutegia:

09:00 - 13:00

18:00 - 20:00

**Informazioa eta
matrikula:**

ERDU AEKn
Garibai, 14, 3
943 77 03 69

Aukera paregabek


Rock doinuak, euskal lab

Gaur hasi da Donostiako Zinemaldia. Eta han ere, sail ofizialean ez bada ere, arrasatear bat egongo da: Manu Gomez, *Illarri* film laburrekin. Hilaren 27an estreinatuko da Principe zinemaren arratsaldeko 16:00etatik aurrera.

Atzo, berriz, punk jaialdi erraldoi bat hasi zen Bergarako Jam aretoan, justu *RIP* talde mitikoak kontzertua eskaini behar duen asteburu bat lehenago. Horretaz guztiaz aritu gara Iñaki Bengoa eta Pello Aldabe lagunekin. Biek osatzen dute Shot grabaketak eta biek uste dute inguruotan, musika tradizioak eraginda, talde berriak beti sortzen direla. Agian horregatik ari dira beti hasiberria den talderen baten maketa edo diskoa grabatzen. Oraintxe, esaterako, Aretxabaletako talde baten lana hilezkortzen hasiko dira. Taldeak Serial Number izena dauka eta "ziur asko Aretxabaletan gaur egun dagoen talde bakarrenetarikoa izango da".



Iñaki eta Sex Museum taldeko kide bat.



Juan (EKON), Shot estudioan egon zenean.


Bergarako "Holidays in The Sun" punk jaialdia aitzakiatzat hartuta, Iñakik eta Pellok horrelako musika jaialdietaz duten iritzia jakin dugu. Azken batean, egunero ari dira horrelako eta bestelako doinuak entzuten, eta euren lanak horrela eskatzen dielako, kontzerturik kontzertu ere. "Garestia, oso garestia. 17.000 pezeta? Jai bat baldin bada, jai oso garestia iruditzen zait. Gainera, leku itxi batean, hamaika talde agertoki bakarrean... Euskal Herrian oraindik betiko estiloak dirau bizirik, nahiko tradizionalistak gara zentzu horretan, baina diru kopuru handia da".

TEKNOLOGIA ETA MUSIKA

Punk doinuak ei dira oraindik ere talde gazteen artean erakargarrienak; Iñakik eta Pellok jakin badakite horretaz. Dagoeneko sei bat urte daramatzate Araba etorbidean, musika tresnez inguratuta grabatzen ari direnean eta aparailuekin lanean, grabaketa horren gainean lanean ari direnean. "Teknologia geldiezina da eta beti gabilta gure aparailuak berrizten, bestela atzean gelditzen zara; gainera, lana asko errazten dizu eta hasiberriekin ere arindu egiten du lana".

Baina, baieztatu digutenez, horrek ez du esan nahi musika estiloa aldatzen denik. "Tekno musika entzun egiten da, baina ez dira diskoak sal-

ela duten musika doinuak



GRABAKETA KULTURA

Urte hauetan lan egiten ikasi du bikote honek, baina grabaketa kultura bat ere sortu dute herrian. "Tade hasiberri batekin aritzea ezberdina da, lehen horretan aritu den talde batekin alderatuz gero. Lehen ibilitakoek badakite nolako den lana. Askotan, berriei azalpenak eman behar dizkiegu eta hori ere polita da. Hala ere, eta euren alde esan beharra daukagu, geroz eta hobeto prestatzen direla grabaketaren aurretik; geroz eta gehiago entseatzen dute. Arrasateko estudioak zerbaiterako balio izan badu, taldeek gehiago lan egiteko izan da. Grabaketak geroz eta dinamikoagoak dira, batez ere lan egiteko modua ezagutzen badute. Aparailuen kalitatea hobea izan daiteke, baina jotzen duenak gaizki jotzen badu, alferrik da, eta horretaz konturatu dira musika taldeak". Pellok dienez, aurrekontuak egiterakoan kantu bakoitzeko egun bat izaten da neurria, baina beti ere euren lanen artean, bada-

tzen. Diskoak saltzen betikoei segitzen dute: *Oskorrik*, *Fermin Muguruzak*... Beste musika estilo bat dagoela, teknoa adibidez? Baina, Euskal Herrian ez da tekno musikarik egiten. Hala ere, oso musika ona ere egiten da. *Dut* taldeak egiten duena, esaterako, oso ona da. Gainera, euskal musika taldeek Espainian erreferentzia izaten segitzen dute; «rock-radikal mobida» oraindik orain bizirik dago. *La Polla Records* taldearekin Madrilan izan ginen azkenengo aldia ere, jendea txoratu egin zen; jakina, Londresera joaten bagara, han beste kontu batzuk entzuten dira eta agian bai, pixka bat atzeratuta gaude...".

ezpadako pare bat eguneko epea uzten dute, beti ere, musikariari ez bazaio ondo ateratzen, edo abeslariari ahotsean zer edo zer gertatu zaiola...

MUSIKARI BERRIAK

"Hor dago Arrasate Musikal, ezta?". Horixe bota zidan Iñakik, gaur egun Arrasaten ea musikaririk dagoen galdetu nionean. "*RIP*en lortatzean hazitako taldeak beti egongo dira. Gainera, hauetako askok maila ere badute. Horren herri txikia izateko talde asko daude eta estilo asko lantzen dituzte; hori aberasgarria da oso".

Talde berriak, ohi bezala, gazteak dira, baina asko dira talderik talde ibiltzen direnak. "Urte batzuren bueltan, *EKON*en belaualdiko guztiak jotzen ibiliko dira, ez dira gelditzen: *Brutal Melody* taldea, esaterako, banatu egin da, baina kideek beste talde bat sortu berri dute. Kontua, musika egitea da. Beti gertatzen den zerbait da: goian talde bat dagoenean beste mordo bat sortzen dira, hori *RIP*ekin ger-

tatu zen eta *EKON* taldearekin gauza bera gerta daiteke".

Gaur egun, urrian izango duten lan mordoari aurre egiteko prestatzen ari dira. Iñakik esan digunez, Durangoko azokan disko asko saltzen dira eta talde ugari grabatzen dute azoka horretarako.

HASIERAK

"Hasi ginenean baino ezagunagoak gara. Taldeek euren artean egiten dute berba Shot- ez, baina zeu ere hor egon behar zara, ezagutzera eman eta zeure lanaz berba egin dezaten". Eta horretan, teknologia berrietan inbertitzeak ere laguntzen du. Hori dela eta, lantokia txiki gelditzen ari zaie Shot-ekoei: "Etorri eta hilabetera, txiki gelditu zitzazun". Musika atsegin dutelako hasi ziren honetan lanean, "bestela ezingo zenuke horrela lan egin; beno, Arrasaten, eta orokorrean Euskal Herrian dagoen talde kopurua ere, pizgarri bat izan zen gure erabakiarentzat. Egon, bazeuden grabaketa estudioak, baina oso handiak ziren guztiak, hiriburuetan kokatzen direnak. Gure planteamendua beste bat izan zen: estudio txiki bat, hasiberriak diren taldeekin lan egiteko; baina, badira gutxi gastatu nahi duten talde handiak ere. Kontua da, gehien atsegin duguna talde txiki eta berrieekin lan egitea dela; *Rolling Stone* taldeari grabatzea ere gustatuko litzaiguke, baina tira! (barreak). Denborarekin arlo batera mugatzen joaten zara eta hori da bilatu izan duguna".



Lantokia txiki gelditzen ari zaie Shot-ekoei.

Marijo Deogracias

MANU GOMEZ (ZINEMA ZUZENDARIA)

“Gauzak ondo ateratzeko”

1992an filmak egiten hasi zen, “Se fue”, Jacobo Martosiren laguntzarekin, Pablo Llorcaren “Todas hieren” film luzean argazki zuzendariaren laguntzaile eta Daniel Calparsorekin “A Ciegas”-en. Baina, gazte honek bere lehengo film laburra ere zuzendu du: Illarri. Irailaren 27an Donostiako Zinemaldiko Euskal Errealizatzaileen sailean estreinatuko da, Principen.

27 urte ditu eta Berlingaren “El Verdugo” filma omen da gehien ikusi duen filma. Egun hauetan Madril ibili da bere lagun Antonio Hernando (Lisboa) zuzendariarekin, film luze bat grabatzen.

— Zuzendaria ala hari idazlea?

—Zuzendaria, noski. Hasten ari zarenean, proiektu bat aurrera ateratzeko, zuzendaria bera izaten da haria egiten duena. Zuzendariak enkar-guzko filmak egiteko ohiturarik ez dago Espainian, EEBB-

etan bezala. Han oso gutxi dira euren hariak idazten dituzten zuzendariak.

— Orain dela 5 hilabete grabatu zenuten Illarri, baina muntaia luze joan da, ezta?

— Bai, neu “Aladina” telebista saioan hasi nintzen lanean. Aitor Mantxolak ere beste film batzuetan jardun du eta filma muntatzeko eta produkzio ostekoa egiteko tarteka hartu behar izan dugu astia. Illarri orain dela pare bat hilabete amaitu genuen guztiz.

— Oñatin estreinatu zenuen Illarri. Nola joan zen?

— Ezin izan ginen joan. Lanean genbiltzan eta ezinezkoa izan zitzaigun. Donostiako estreinuaren zain gaude. Beste hainbat jaialditara ere bidali dugu: Granada, Alcala de Henares... baita nazioarteko jaialdietara ere.

— Zaila izan da film labur hori egitea?

— Aitor eta biok lagun handiak gara: berak ekoiztu zuen eta elkarrekin idatzi genuen. Eusko Jaurlaritzari laguntza eskatu genion eta 1,5 milioi pezeta eman ziguten, baina film laburra 5 milioi kosta da; hori dela eta, laguntza eman eta gero, proiektua geldirik egon zen, kultura ministerioari ere eskatu geniolako, baina ez zigun erantzun.


— Diruaz gain, bestelako laguntzarik lortzea zaila izan zen?

— Zorionez, film laburren inguruan jendeak asko laguntzen du eta gure kasuan lagun talde polita egin genuen; adibidez, Antonio Her-

andez, Lisboa filmeko zuzendaria, nire laguntzaile aritu zen. Horrelako asko egon zen eta oso polita da. Azken batean, hori da film laburren oinarria, interesik gabeko laguntza; eta hori, eskertzekoa da.

— Mainer Egües izan da aktore nagusia eta bere lehengo lana zen. Nolatan aukeratu zenuen?

— Nire laguna da



“Beti dago ondo norberaren estiloa lantzea eta inoren eraginik ez izatea”

ari zaizkit”

12 urte nituenetik eta beti iruditu zait aktore izateko balio duela. Proposatu nionean, baietza eman zidan nahiz eta berak ez duen nahi zineman lan egin. Egia esan, ez nion garrantzirik eman esperientziarik ez izateari; banekien ondo egingo zuela.

— Nola iritsi zarete Donostiako Zinemaldira?

— Bideo bat bidali genuen eta aukera egiten dutenek onartu egin ziguten. Dena dela, hor egotea ez da inongo meritua. Zinemaldiak euskal egileen film laburrentzako tarte bat dauka, beraz...

— Film laburrek badute tokirik merkatuan?

— Film laburren merkaturua ez da txikia, ezezaguna baizik. Jaialdi asko dago eta horietako asko oso garrantzitsuak dira, Bilbokoa esaterako.

— Zertan ari zara orain?

— Bi hilabetetik ona, film luze batean ari naiz. Proiektu sekretu bat da eta eragin handia izango du; arrakasta handiko filma izango da; ezkutuko kamerak erabiliko ditugu, baina ezin dut gauza askorik aurreratu. Arrisku handiko proiektu berezia da eta ez da inoiz egin. Proiektu hau amaitu ondoren, martxoan, Antonio Hernandezoren “En la ciudad sin límites” film luzean hasiko naiz lanean.

— Proiektu propiorik esku artean?

— Film luze bat idazten

ari naiz. Gauzak nahiko ondo ateratzen ari zaizkit eta jende oso onaz inguratuta nago aldi oro; asko ikasten ari naiz.

— Nola dago zinemaren arloa gure inguruan?

— Nik ezagutzen dudantetik, zinema espainiarra unerik onena bizitzen ari dela esango nuke. Produkzio asko daude eta lan ugari dago.

— Filmik gustukoena?

— Gehien ikusi dudana Berlangaren “El Verdugo” da, baina ez daukat film faborito bat.

— Zein aktore zuzendu nahiko zenuke?

— Ez dakit, Sergi Lopez gustuko dut eta Federico Lupi ere atsegin dut.

— Eta emakumezkoetan?

— Ideiarik ez. Nahiago nuke aktore bat aurkitzea eta berarekin lan egiten dudana bitartean aktore bat egiten lagundu. Uste dut emakumezko aktore handi batekin lan egiteak beldur pixka bat emango zidala.

— Zein zuzendari miresten duzu?

— Antonio Hernandez.

— Zer gustatuko litzazuke egitea?

— Historia kontuan izanda, beti dago ondo norberaren estiloa lantzea eta inoren eraginik ez izatea; hau da, istorio bat idatzi eta planoak arimatik atera daitezela eta jendeak uler ditzala. ■

EMAKUMEON TXOKOA

Hezkidetzaz ikastaroa

- **Helburua:** hezkidetzaz oinarritzko prestakuntza jasotzea eta praktikaldia egitea
- **Norentzat:** hezitzaile moduan lanean ari diren edo prestakuntza duten pertsona interesatuentzat (Irakasietza, giza zientziak, gizarte zientzietako... azken urteetan)
- **Noiz:** 2000-2001 ikasturtean, urritik ekainera.
- **Informazioa eta izen ematea:** Udaleko Emakume edo Hezkuntza Sailean urriaren 11 arte.

Lan orientabide ikastaroa

- **Helburua:** norberaren lanaren prolektua osatzea eta lan orientabidea jasotzea
- **Norentzat:** lehen mailako ikasketak duten emakume langabetuei zuzenduta
- **Epea:** urriaren 6ra bitartean
- **Ordutegia:** goizez (9:30-12:30) astelehen, asteazken eta ostiraletan

Literatura edo irakurketa tailerra Monterronen

Irakurtzea gustuko duen taidea bilduko da urritik maiatzera bitartean Monterronen.

- Hilerio liburu baten kritika egingo da. Idazle, liburu eta literatur testuinguruari buruz hitz egingo da modu arin eta ulergarrian. Eta ostean, elkarrizketa izango da, eztabaldak eta galderak.

Hazkunde pertsonala

- **Helburua:** nor bere ezagutza eta taide harremanak lantzea
- **Ematea:** Pepa Bojo psikologoa
- **Ordutegia:** 17:00etatik 19:00etara, asteartetan
- **Izena emateko epea:** urriaren 3ra bitartean

Komiki ez sexisten erakusketa

Monterronen, irailaren 28tik urriaren 6era bitartean

Informazio gehiago, Arrasateko Udaleko Emakume Sailean: deitu 943 79 09 00 edo eta 943 79 41 39 telefonoetara. Gerturatu Arrasateko Udaletxera, herriko plazara. Helbide elektronikoa: emakume@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla ■

Asteburuan sortu zen Tostoi en eta Erreilenoen kofradia; Bergaran, nola ez. Sinatze ekitaldia, ohorezko kofradeen izendapena... eta ondoren, hamalau kofraderen desfilea eta bazkari oparoa izan zuten. Ziur Bergarako tostoi eta erreilenoak jateko aukera izango zutela!




BI ALDIZ, ZORIONAK!



Mikel Aznarez Amozarrain irailaren 4an jaio zen, amatxo Milaren urtebetetzearekin batera ia-ia, hau irailaren 25ean baita. Mikelen amaren udaletzeko lankideek zorionik beroenak eman nahi dizkiote familia osoari,

ARKOREN FITXAKETA BERRIA



Oti dotore honek ARKOn lan egin nahi zuen, nonbait, birritan sartu zitzaigun eta leihotik gure egoitzan joan den astean. Joan aurretik argazki hau utzi zigun, oroigarri moduan.

EGUZKIA

EGUZKITAKO

BETAURREKOETAN

DAUDEN DESKONTU HARRIGARRIETAZ

BALIA ZAITEZ

DENBORALDI BUKAERAGATIK

%50 arte

MULTIOPTICAS
LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA



MultiOpticas es un servicio de
MULTIOPTICAS para facilitar la vida de
nuestros clientes.
*Cada día de 10h a 20h en todas las sucursales.
*Reserva de plaza para el día de la apertura.



R.F.S. N° 16499

MENDIZALE UGARI BESAIDEN




Argazkia: GOITB.

Udalatik, Kanpazartik eta Elorriotik igota, euskal mendizale ugari elkartu ziren Besaide Eguna ospatzeko. Falta ziren mendizaleei omenaldia egin zitzaien, artean, jakina, Felix Iñurrategiri. Bertsoak, loreak eta dantza saioak ere ez ziren falta izan.

URTE ASKOTARAKO!

Jose Mari Uriartek eta Mertxe Amozarrainek urrezko ezteiak ospatu zituzten irailaren 9an. Hirugarren protagonista bat ere badago: on Pablo Barrena apaiza, berak ezkondu baitzituen bi aldiatan. Ea, bada, diamantezko ezteietan ere hirurak elkartzen diren berriro!



EGITARRAUA KASTAROA 2000/2001

- Mekanografia ordenagailuz
- Informatika
- Internet
- Microsoft project
- Autokad
- Programazio informatika
- Ingeles eta euskara multimedia
- Gestio kontablea
- Giza baliabideen administraketa

- Zerga gestioa
- Informatikako ekipaien mantentze eta konponketa
- Musika informatika (MIDI Sistema)
- Enpresa Zientziak
- Ingeniaritza
- Laguntza eskolak

INTENTSIBOAK
IRAILAN



Forcem eta Hobetuz eko ikastaroak
%100eko dirulaguntzak aktiboan
dauden langileentzako

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 - 1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

AKADEMIA

BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorbidea, 3 - 1
20500 Arrasate-Mondragón
Tel.: 943 79 35 33
Fax: 943 79 06 28
E-mail: bastida@tsai.es

Euskal Herriko goitibehera txapelduna

MIKEL GOMEZ

“Beste goitibehera batzuk ere hasi dira gurearen itxura izaten”

— Angiozarren bigarren izan zineten, zelako jaitsiera zen?

— Jaitsiera politenarikoa da Angiozarkoa; pare bat bihurgune oso onak ditu, baina oso gaitzak. Hala ere, gus-tura ibili ginen. Arrasateko Udalako jaitsiera eta Angiozarkoa ditut gustuko. Arrasaten ere, Kontzeziño-ko bihurgunea kontuan izatekoa da.

— Eta larunbatean Euskal Herriko txapeldun izendatu zintuzteten?

— Parte hartzen dugun lehenengo urtea da eta irabazi egin dugu, baina pena izan da aurten lasterketa gutxi egon direla. Jendeak lasterketak egiteko gogoa zuen, baina aurten leku gutxitan izan gara. Ia datorren urtean gehiago egiten diren.

— Nork egin du zuen goitibehera?

— Neure laguna ingeniaria da eta berak diseinatu zuen. Kalkulu fisiko guztiak eginda diseinatu zuen. Nik, berriz, mekanikoa naizenez, goitibehera egin nuen.

— Orduan, zuen goitibeherak abantailak zituen besteekiko?

— Dagoeneko beste goitibehera batzuk ere hasi dira gurearen itxura izaten.

— Eskola egin duzue?

— Itxuraz, bai.

— Baina, zer da garrantzitsuagoa, gidaria ala goitibehera?


— Lehenengo gidaria eta gero goitibehera. Diseinua egokia bada, ondo ibiliko da, baina bere baliabide guztiak aprobetxatzen jakin behar du gidariak.

— Montjuich mendiko jaitsiera egin nahi omen duzue?

— Bai, autobus batean gu eta beste hainbat goitibehera sartu eta hara joan nahi dugu; urri aldean omen da; beraz, han egongo gara.



SASKIBALOA Denboraldia prest



Lagunarteko 3 partida jokatu zituzten Arrasate Saskibaloiko taldeek asteburuan.

Ostiralean, nagusienak Beasainen aritu ziren eta datorren astean Getxon hasiko duten ligarako erakusgarria izan zen neurketa. 79 eta 63 irabazi zuten mondragoetarrek BKL-CAF Beasain taldearen aurka.

Aurten, liga horretan aldatetako egon dira: 24 talde arituko dira 3 multzotan banatuta.

Multzo bakoitzeko lehenengo 4 taldeek igoera aldia jokatu dute eta gainontzekoek, berriz, mailari eusteko kanporaketa.

Kenci Arrasate taldean ez da aldaketa handirik sumatuko. Raul Moreno izango da jokalar berri bakarra eta entrenatzaile Lander Errastik segituko du.

Larunbatean, bestalde, izan hasitako Debagoieneko Lagunarteko Saskibaloiko Txapelketa jokatu zen. Junior eta kadete mailako taldeek jokatu zuten eta biek irabazi egin zuten. Liga, berriz, urriaren hasieran hasiko dute. Emaizak honakoak izan ziren: Juniorrak: Kenci Arrasate 62 - Oñati 58 eta kadetetan: Kenci Arrasate 52 - Bergara 47.

FUTBOLA Hasiera bikaina



Lehen erregionaleko neskek, justu, baina irabazteko beharrezko gola sartu zieten debatarrei


joan den asteburuan. Denboraldiko lehenengo neurketa izan zen eta Esti Loitiren hamaikakoak 0 eta 1 irabazi zuten. Asteburu honetan Atxa-

balpen jokatu dute partidarako indarra emango die emaitza horrek. Izan ere, aurkariak Urola taldekoak izango dira; talde beteteranoa osatzen dute urolarrek, beraz, gazteen bizitasunaz baliatu behar-ko dira Estirenak. Partida Atxabalpen izango da, 15:30ean, larunbatean.

Bestalde, lehen urteko gazte mailakoek 1 eta 3 irabazi zieten Segurarei, denboraldiko 2. partidari, Asier Gonzalez, Iker Lopez eta Mikel Olmedok sartutako golei esker. Aste honetan Atxabalpen jokatu dute Aurrera Ondarroa taldearen aurka. Partida zapatuan izango da arratsaldeko 17:15ean.

Bigarren urteko gazteek, berriz, etxean jokatu zuten eta 1 eta 0 irabazi zuten Soraluzearen aurka. Loitik sartu zuen partidako gol bakarra. Aste honetan igandean, 16:00etan jokatu dute bigarren urteko gazteek, Eibartarrak taldearen aurka, Eibarren.

XAKEA Emaitza onak



Joan den larunbatean, Josu Tornay, San Andres xake taldeko xakelaria,

Urretxun aritu zen banakako xake txapelketan eta seigarren tokian gelditu zen. Taulak egin izan balitu bigarren sailkatzeko aukera zuen; hala ere, azkenengo partidari arriskatu egin zuen eta aukera guztiak galdu zituen.

Igandean, San Andres xake taldekoak Bergarako Xake Txapelketan azpitxapeldun izan ziren. Josu Tornayk, Txema Hernandok eta Roberto Andresek osatu zuten hirukotea. Burgos izan zen lehenengo eta mondragoetarrek bigarrenak.

Asteburu honetan Castroko Irekia jokatzera joango da San Andres xake taldea.

Lehen erregionaleko Mondra futbol taldea

Mondrako talde nagusiak asteburu honetan hasiko du 2000-2001 denboraldia. Baina, kanpoan egingo du estreinaldia Raul Leibaren taldeak: Andoainen. Euskalduna taldearen aurka jokatuko dute.

Raulek taldean jokalaria berriak ere baditu denboraldi honetan. Eta

bera ere berria da entrenatzaile bezala maila honetan. Dena dela, jokalarietako asko ezagutzen ditu eta berak jokalaria bezala ere goragoko mailetan jokatu du. Beraz, aurten Mondrak erronka handia dauka: mailaz igotzea.

Hasiera ona izan behar!



Julio Hernandez
Atezaina
19 urte, 1. denboraldia



Aner Elortza
Atezaina
20 urte, 1. denboraldia



Argider Arana
Atzelaria
22 urte, 5. denboraldia



Andoni Azpiazu
Atzelaria
20 urte, 2. denboraldia



Jon Unamuno
Atzelaria
19 urte, 6. denboraldia



Mikel Larrañaga
Atzelaria
23 urte, 4. denboraldia



Aitor Laskurain
Atzelaria
20 urte, 2. denboraldia



Illart Etxeberria
Erdilaria
19 urte, 1. denboraldia



Ibai Uriarte
Erdilaria
20 urte, 1. denboraldia



Kepa Barbarias
Erdilaria
20 urte, 1. denboraldia



Andoni Solupe
Erdilaria
20 urte, 2. denboraldia



Iñigo Arkauz
Erdilaria
20 urte, 3. denboraldia



Itoitz Errasti
Erdilaria
19 urte, 1. denboraldia



Iban Garai
Erdilaria
20 urte, 2. denboraldia



Xabier Mondragon
Erdilaria
20 urte, 3. denboraldia



Ander Bereziartua
Erdilaria
21 urte, 3. denboraldia



Andoni Ezkurra
Erdilaria
19 urte, 1. denboraldia



Ekain Garin
Aurrelaria
19 urte, 2. denboraldia



Jon Muruamendaraz
Aurrelaria
20 urte, 2. denboraldia



Koldo Balantzategi
Aurrelaria
19 urte, 2. denboraldi



Raul Leiba
Entrenatzailea
27 urte, 1. denboraldia

Euskalduna eta Mondraren arteko partida larunbatean izango da Andoainen arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

Etxebizitzaz berbetan

Irailaren 27an, eguaztena, Arrasaten eztabaida bizi-bizia sortzen ari den gai batez iritziak elkartrukatzeko aukera izango dugu, "Etxebizitza: eskubide ala luxu Arrasaten? Arazoaren azterketa, aurreikuspenak eta aterabideak" mahai ingurua antolatu baitu AED elkarteak.

Arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Xabier Zubizarreta alkateak, Anboto Inmobiliaria enpresako Xabier Pagaldaik eta "Denontzat" bazterketa sozialaren aurkako plataforma arrasatearreko kide batek jardungo dute Pleno Aretoan. Herritarrak ere parte hartzea gonbidatuta zaudete.

EZTABAIDA

Etxebizitzaren arazoaren inguruko eztabaida bero-bero dago Arrasaten. "Denontzat" plataformaren ikerketa baten arabera, pisu batek 25 eta 40 milioi pezeta artean balio du Mondragoen. Familia batek 10 urtez bideratu beharko lituzke bere baliabideak etxe bat erostera, plataforma horren kalkuluen arabera.

Ludoteka berria egingo du Udalak



Baldintza hobek eskaintzen dituen lokal batean egokituko da ludoteka.

Ludoteka berri bat egingo da "Gurea" zinema zeneko udal jabegoko lokal batzuetan; horrela erabaki zuen joan den irailaren 11ko Gobernu Batzordeak, Kultura saileko proposamena aztertu ondoren. Azoka eta Okendo kaleen artean dauden orubeetan egingo da ludoteka, eta lokalaren azaleraren erdia hartuko luke zerbitzuak. Leku aldaketa hilabete barru egitea da udalaren asmoa.

Orain, behar den proiektua

prestatzeari ekingo diote udalak eta Txatxilipurdik, elkarte honek kudeatuko baitu ludoteka, orain arte bezala.

LOKAL HOBEA

Bi arrazoi nagusirengatik nahi du udalak ludoteka berria egitea. Seber Altubeko Ludotekak 12 urte ditu dagoeneko, eta, udalaren ustez, lokal horrek ez ditu zerbitzu hori eskaintzeko baldintzarik egokienak betetzen. Bestalde, ospitale zaharreko eraikinean

egokitze obrak egingo dira, eta, gutxienez epe horretarako, beste leku bat prestatu behar da zerbitzu hori emateko. Litekeena da, lanak egin ondoren ere, ludoteka egoitza berrian geratzea.

Uztaillean, ikasturte amaierarekin batera, itxi zen Seber Altubeko ludoteka, eta horretan segitzen du, plazako lanak direla-eta. Lanak amaitutakoan zabaltea espero du Txatxilipurdik.



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20



Danona
KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

Analisi klinikoak

Odol ateratzeen ordutegia:

- Astelehenerdik ostiralera: 07:30-10:00
- Larunbatetan: 08:30-10:00

Erla

Isabel Laborra Erdozain

INSTITUTO MÉDICO PALACIO MENDIA
Erdiko kale, 22 • 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 72 16

Osasun erregistro zenbakia: 85/96

SONIA PEREZ (TXATXILIPURDIKO GAZTE SAILAREN ARDURADUNA)

“DJ festa izango da jaialdiko ekintza nagusia”

San Andres eta Musakolako Gazte Txokoek seigarren urteurrena bete dute aurten. Hori dela eta, Txatxilipurdik jaialdia antolatu du egubakoitz honetarako. Sonia Perez ibili da antolaketa lanetan, eta berarengana jo dugu berri zabalagoa jasotzeko.

—Zelakoa izango da jaialdia?

—Egubakoitzean, 17:00etan, parte hartu nahi duten gazte arrasatear guztiak Lau-Kalen elkartuko dira, edo Musakolako txokoan, euria bada. 20:00ak arte, eskulanak eta jokoak egiteko aukera izango dute; ondoren, bokata jana egingo dugu elkarrekin. Baina, ekintza nagusia 21:00etan hasiko da: DJ festa. Gauerdira arte, Uribarriko Gazte Txokoko *DJ Fleky*, *DJ Ekaitz*, *DJ Iosu* eta *DJ Danik* dantzaldia eskainiko dute. Opariak eta zozketak ere egingo ditugu.

—Nola antolatu duzue *disc-jockeyena*?

—Tekno musikarekiko zaletasun handia dute lau mutil horiek, eta zuzeneko agerraldia egin nahi zuten; beraz, ideia eurek ipini dute, eta behar zituzten baliabideak lortzen, geuk lagundu diegu. Izan ere, hori da gazte txokoen helburuetako bat: euren aisialdia gazteek eurek antola dezatela. Gestio hauetan eurek ere hartu dute parte, eta hurrengoan jakingo dute nola egin.

—Sei urte hauetan, gazte txokoen helburu nagusiak bete direla esango zenuke?

—Helburu orokorrak, autoantolakuntzaz gain, euskara eta



komunikazioa suspertzea, eta horiek etengabeko lana eskatzen dute: talde batekin betetzen direnean, hurrengo datozen gazte berriekin landu beharra dago. Gainera, gazte txoko bakoitzak nortasun propioa du, eta behar desberdinak planteatzen ditu. Hala ere, helburu nagusiak lortzeko beste txikiago batzuk finkatzen dira, egunetik egunerakoak, eta horiek beti betetzen dira.

—Hasieratik gaurdaino, asko aldatu dira gazte txokoak?

—Aldatu baino, aberasten joan dira, eguneroko esperientziarekin eta lanarekin. Ideia eta joera desberdinetako gazteak elkartzen dira txokoetan. Kolore askotako jendea egoteak dinamismoa eta aberastasuna ekarri die gazte txokoei.

—Ikusten duzue ase beharreko premiaren bat?

—Erdialdeak gazte txoko bat behar du. Baina, asko landu beharreko asmoa da oraindik.

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

- EHU-UPVko Hirugarren Zikloko programetarako diru laguntzak. Epea: irailak 29.
- 2000-2001 ikasturterako lan-kidetza-bekak. Epea: irailak 29.
- Gizarte Ekonomiako enpre-setan. Epea: irailak 30.
- 2000-2001 ikasturtean uni-bertsitateaz kanpoko ikasketala-guntzetarako deialdia. Epea: urriak 13.
- Unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko urteroko diru laguntzak, Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Epea: urriak 31.

■ LANA

- Arrasateko Udalak administrari orokorreko teknikaria, ingurumen teknikaria, aukera berdintasuneko agentea, Ingurugiro Eskolako irakaslea, liburuzaina, zerbitzuetako ikuskaria, gazte informatzailea, 5 udaltzain, administrari laguntzailea, peoia eta kultura ekintzetako 2 operari behar ditu. Izena emateko epea: EAOn argitaratu zain (iraila-urria).

■ LEHIAKETAK

- Bilboko Udaleko Emakumearen Zerbitzuak “Emakumeak Kontari” VII. Narrazio Lehiaketa antolatu du. Epea: irailak 29.
- “Gazteak eta arrazakeria” argazki lehiaketa. 2 kategoria: 14-18 urte birtarteko Debagoieneko gazteak eta 18-35 urte bitarteko edozein. Epea: urriak 11.

■ IKASTAROAK

- Euskal dantza ikastaroa: urriaren 20tik abenduaren 15era. Matrikula 1.000 pta.
- Ekin Emakumeak-ek eskulan eta dantza ikastaroak antolatu ditu. Astelehen eta astearte arratsaldetan. Izen ematea AEDn.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

“Kolore askotako jendea egoteak dinamismoa eta aberastasuna ekarri die gazte txokoei”

holidays in the sun

asteburuan, punka jaun eta jabe Bergaran

Egubakoitz honetan hasiko da, Bergarako Jam aretoan, *Holidays in the Sun* punk jaialdia. Hiru egunetan, Erresuma Batutik, Espainiatik, Txekiatik, Italiatik, Alemaniatik eta Euskal Herritik etorritako 25 talde ikusi eta entzuteko aukera izango dugu.



Egun solteetarako sarrerak ere salduko dira, 6.500 pezetan, Jameko txarteldegian, nahiz eta hasiera batean hiru egunetarako bonuak baino ez ziren eskainiko, 17.500 pezetan. Discopolisen ere salgai daude bonuak.

Jaialdi handi honen antolatzailea *Darren Russell Concerts* enpresa ingelera da. Erresuma Batuan tradizio bihurtu dira punk estiloko jaialdiak: dagoeneko zazpi aldiz antolatu izan dira han. Hala ere, Europako beste txoko batzuetan ere esperimentatu nahi izan da: maiatzean Berlinen antolatu zen, eta oraingoan Deba-gianean.

HASIERAN, ARRASATEN

Hasieran, jaialdia Arrasaten egiteko asmoa zegoen. "Punkaren sorterrria da Arrasate, RIP taldea ere horkoa da, eta omenaldi antzeko bat egin nahi genion", dio Alvaro Blauk, oraingo edizioaren antolatzaileak. Azkenean, hainbat oztopo zirela medio, Mondragoen ez, baina hemendik gertu bilduko dira punk taldeak.

Kanpoko jende asko espero dutenez -Norvegiatik hainbat lagun etorriko omen dira-, San Martzial aldean kanpalekua prestatu dute antolatzaileek eta Jam aretoak. Gainera, salmenta postuak, txosnak eta punk disc jockeyak ere izango dira. Aurkezpena egunean egingo da, baina benetako jaialdia egubakoitzetik domekara izango da.

22

EGUBAKOITZA (19:30)

Slaughter & the Dogs (Erresuma Batua)
Cockney Rejects (Erresuma Batua)
Aerobitch (Madril)
La Broma de Satan (Madril)
The Devotchkas (Txekia)
Suburban Rebels (Bartzelona)



La Broma de Satan.

23

ZAPATUA (16:30)

Cock Sparrer (Erresuma Batua)
The Boys (Erresuma Batua)
Peter & the Test Tube Babies (Erresuma Batua)
Klasse Kriminale (Italia)



The Boys.



Peter & the Test Tube Babies.

Splodge (Erresuma Batua)
The Casualties (Erresuma Batua)
MCD (Bilbo)
Vicious Rumours (Erresuma Batua)
Commando 9mm (Madril)
Segismundo Toxicomano (Gasteiz)

24

DOMEKA (15:30)

The Business (Erresuma Batua)
Angelic Upstairs (Erresuma Batua)
Oxymoron (Alemania)
Red Alert (Erresuma Batua)
Escuela de Odio (Asturias)
37 Hostias (Madril)
The Stains (Erresuma Batua)
Reazione (Italia)
Sick Boy Federation (Erresuma Batua)



Oxymoron.



The Business.



Sick Boy Federation.

San Migeletan, Oñatin

San Migelak gainean daude eta Oñatik jai egitarau oparoa prestatu du, herriko zaindariaren jaiak ospatzeko. Asteburu honetan izango dira lehen ekitaldiak: Artzain Txakurren Nazioarteko Txapelketa, Euskal Herrian jokatzeko den txapelketarik garrantzitsuena eta Ruper Ordorikak kantaldia eskainiko du, Santa Anan.


ALBISTEGI BEREZIA

Goiena Telebistak ere parte hartu nahi du oñatiarren jai hauetan eta albistegi berezia egingo du irailaren 29an, San Migel egunean.

Arratsaldeko 18:00etan, unitate ibiltaria erabiliz, Oñatiko plazan jarriko dugu albistegietako platoa eta hantxe grabatuko dugu eguneko albistegia, arratsaldeko 20:00etan emango dena.

Aurkezlea Maider Osa izango da, betiko moduan. Eta GOITB Leintz bailarara eta Aramaiora zabaldu zenean herri horietan egin zen legez, albistegiak zati handia eskainiko dio egun horretan Oñatiri. Elkarrizketatuak oñatiarrak izango dira eta hainbat albiste eta erreportajek Oñati izango dute gai Berriak saioan.

Egun horretako informatiboa ez da Oñatin ikusiko, jakina, oraindik ez baita antenarik jarri han. Laixan euskara elkarteak, berri, tabernaz taberna bana ditzake albistegiaren kopiak, oñatiarrek ikusteko aukera izan dezaten.



Irailaren 29an Berriak, Oñatitik.

BERRI ONAK DIPUTAZIOAN

Denboraldi batez, ez arte eta ez iso egon ostean, badirudi Gipuzkoako Foru Aldundia prest dagoela diruz laguntzeko, Goiena Telebista bailara osora hedatzeko egin behar diren inbertsioetan. Onuradun nagusiak gure udalak izango lirarteke, noski, antena jartzeko kostuen zati handi bat diputazioak ordainduko luke-eta.

arrasate
irratia



ASTELEHENETIK OSTIRALERA

- 09:00 **Egunon Arrasate**, albistegia Alazne Ostolazarekin.
- 09:30 **Prentsaren errepaso**.
- 09:55 **Eguneko hitzorduak**.
- 10:00 **Igo autobusera**, Lehenego ibilbidea Aitziber Aranburu-zabalarekin.
- 11:00 **Albistegia**.
- 11:15 **Igo autobusera**, Bigarren ibilbidea.
- 12:30 **Agenda, oharra, eskelak...**
- 12:45 **Albistegi nagusia**.
-
- 14:00-18:00 **Errepika**.



BITXITEGI TAILERRA



Biteri kalea, 13 • ARRASATE • Tel.: 943 79 34 26



Udalatx
InmobiliariA

- Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
- Tasazioak
- Fiskal Aholkularitza
- Errentamenduak
- Kontratuak

Etxebizitza berriak salgai

- Arrasaten **Ferrerias** kalean.
- **Aretxabaleta** erdialdean.

Maalako Errebala, 27 behea ▪ Tel.: 943 79 59 99

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Sierra Morenan (Jaen) 240 m²-ko etxea salgai, 15.000 m²-ko lur sailarekin. Putzua, garajea eta igerilekua dauka. Arrantzarako eta ehizarako inguru aproposan kokatua. Prezio oso interesgarria. Tel.: 606 69 32 87. Antonia.

• Erdialdean pisu berria alokagai: 3 gela, egongela, 2 komun, sukaldaria eta trastelekua. Tel.: 656 78 69 49.

• Etxea salgai makatzenan. 70m². Tel.: 943 79 77 03.

3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokagai 4 ikaslerendako. Unibertsitateetik 5 minutura (oinetz). Tel.: 669 83 94 68.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza bat behar dut Aretxabaleta eta Eskoriatza artean. Konpartitua. Tel.: 686 95 56 97.

5. Etxeak osatzeko

• Lagun bat bilatzen nabil etxebizitza bat betetzeko. Tel.: 943 77 13 20.

• Neska bat behar dugu Sarrikon pisua osatzeko. Tel.: 943 79 48 53 edo 696 86 40 48.

• Neska batek gela bat alokatu nahi du. Tel.: 94 440 58 78 edo 696 88 26 65.

GARAJEAK

9. Errentan emateko

• Garajea alokagai Uarkapen. Tel.: 943 79 84 35. Goizez edo gauez deitu.

LOKALAK/ORUBEAK

14. Errentan emateko

• Orube komertziala, errentan emateko. 80 m², Erdiko kale 26. Tel.: 943 71 46 27.

LANA

17. Eskaintza

• Kliniketa laguntzailea, geriatrian espezializatua, gaixoak eta nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 609 77 01 33.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatua
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Esperientziadun emakumea, pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 68 77. 12:30etik aurrera.

• Neska prest umeak zaindu edo denda batean lan egiteko. Tel.: 943 79 69 66. Ainhoa.

• Emakumea prest orduka lan egiteko. Tel.: 626 626 167.

18. Eskaerak

• Medikuntza ikasle bat, gauez gaixoak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 07 03, 943 79 23 17 (Ainara).

• Zerbitzari bat behar da Gatzaga Gainen. Tel.: 943 71 55 22. Mari Karmen.

• Ile apaintzaile bat behar da. Tel.: 943 79 49 72.

• Taberna baterako zerbitzaria behar da. Tel.: 943 77 17 97 edo 943 79 38 93.

• Pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 91 64. 10:00-13:00, 17:00-20:00.

• Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 93 89. 20:00 etatik aurrera.

• Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko, astean egun batean, 3 bat orduz. Tel.: 943 79 26 89.

• Komertzialak behar dira Arrasate

ingururako. Tel.: 943 21 42 28. 9:00-13:00.

• Zerbitzariak behar dira. Tel.: 945 44 50 86.

• Taberna baterako sukaldari lanak egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.

• 18 eta 35 urte bitarteko jendea behar da hipermerkatuetan produktuak kokatzeko. Interesatuok curriculuma bidali ondoko helbidea: Marketing aplicado, Avenida Madrid 121, 3C, 50.010 Zaragoza. Tel.: 976 34 63 61.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Matematikako eskolak ematen ditut UBlra arte. Tel.: 943 79 39 23. 18:00etatik aurrera.

21. Eskaerak

• Pertsona bat behar da DBHko lehenengo mailako eskolak emateko. Tel.: 943 79 83 15, 21:00etatik aurrera.

• Alemana irakasteko pertsona behar da (irakasle bat behar da). Tel.: 943 79 38 16. Idoia.

• Batxilergoko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako eskolak emateko irakaslea behar da. Tel.: 943 79 28 79. Deitu 19:00etatik

21:00etara. Mertxe.

MOTORRA

23. Saldu

• Nissan King gab 4x4 2.500 diesela salgai. 174.000 km. egoera onean. King Top-arekin. Tel.: 607 95 79 11 edo 626 22 07 57.

• Trial Gas-Gas motorra salgai, 92koa. 125.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

• Furgoneta salgai. Ford Transit "Sobrelevado". SS - AK. Tel.: 943 79 78 04.

• Kawasaki Volcan 800 motorra salgai. 900.000 pta. Tel.: 943 77 08 69.

DENETARIK

26. Saldu

• Besaulki bat salgai, tresilloa (195x90) eta chaise longue (90x156). Modernoa eta berria. 200.000 pta. Tel.: 943 77 19 98.

• Etxeko altzariak salgai. Berriak dira. Oso merke. Tel.: 943 79 38 16. Idoia

30. Hartu

• Bizikleta bat nahi dugu, berdin da zein egoeratan dagoen. Tel.: 943 79 32 29. Ander.

31. Galdu

• Angora arrazako katu bat galdu zen hilak 7an, ostegunean, Arrasaten. Marroi-zuri kolorekoa eta nahiko handia. Tifus izena dauka. Tel.: 943 79 36 82.

HARREMANAK

36. Harremanak

• Arrasaten bizi naiz eta ingelesez (amerikeraz) ondo dakidan mutila naiz. Frantsesez ondo dakien neska baten bila nabil elkarrekin ingeleza eta nire frantsesa hobetzeko. Deitu 619 072 900 telefonora.

37. Bestelakoak

• Familia bat behar da, datorren ikasurtean ikasle bat bere etxean hartzeko. Tel.: 943 83 37 45. Josu.

• Berreskuratu zure osasuna energia erabiliz. Gaixotasun mota guztiak, norberarentzako tratamenduekin. Deitu inolako konpromisorik gabe. Tel.: 943 79 445 74.

<http://www.cim-idiomas.com>

Informa zaitez orain!

Hizkuntzak denontzat

hur, gazte eta helduentzat

- Hizkuntza eta maila guztiak
- Ordutegi malguak
- Mediateka zure esku dohainik
- Multimedia sistemak

MATRIKULA EPEA ZABALIK


CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

AHIZKE S. COOP

Avda. de Álava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)
Tel.: 943 71 20 55 Fax: 943 71 21 81
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com

Olakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
Tel.: 943 71 60 00 Fax: 943 71 80 51
E-mail: oinati@cim-idiomas.com


Florida, 8A - 01005 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)
Tel.: 945 15 01 55 Fax: 945 15 01 56
E-mail: gaztelzbaiby@cim-idiomas.com

Zubieta, 26 - 20007 SAN SEBASTIÁN (GIPUZKOA)
Tel.: 943 43 31 02 Fax: 943 43 37 36
E-mail: donostia@baiby.com

bai&by

Perkusio ikastaroa

Hastapen eta sakontze mailak



- Irakaslea: Iñaki Bruña.
- Ikastaroak: Astelehenero.
- Noiz: Urriaren 2tik San Juanak arte.
- Tokia: Gazteluondoko Aretoan.
(SFX Ikastolan).
- Ordutegia: 18:00 - 21:00.
 - Hastapen ikastaroa: 18:00-19:30
 - Sakontze ikastaroa: 19:30-21:00
- Erritmo desberdinak:
FUNK, AFRO, LATINOA,...

IZENA EMATEA: Gazte Bulegora (943 77 00 65)
edo Iñaki Bruñari (943 79 80 25) deituta



ARRASATEKO UDALA Gazteria Saila ■



Mondragoek izan ditu oroitzapenerako unek futbolaren historian zehar. Aste honetako argazkia duzue horren adibide. 1964-65 urte inguruan dago aterata; jubenilen Gipuzkoako Kopa irabazi zuen orduan "Mondra" taldeak. Ignacio

Ceciaga "Divino II" izan zen entrenatzailea, denboraldi erdialdean, gaixotasun baten ondorioz, Juanito Arriaranek ordezkatu zuen arte.

Hauexek dira argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara, zutik: Patri Etxabe, Pedro Maria Arizabaleta, Angel Ramos, Emilio Inda, Jose Luis Idigoras eta Luis

Maria Arana.

Belauniko daudenak, berriz: Jose Ramon Urtzelai, Jon Sagasta, Jesus Aranbarri, Jose Luis Beitia eta Larrauri.

Aipatutakoen artean, badaude ligako lehen mailan jokatu izan dutenak, hala nola Sagasta eta Aranbarri.

Era berean, esan beharra dago, nahiz eta Gipuzkoako

Kopa irabazi, ez dagoela kopa erakusten duen argazki bat bera ere; argazkilaria joan, joan zen eta argazki kamera ere eraman zuen, baina xehe-tasun bat ahaztu zitzaion: erroi-loa sartzea!

*Argazkia eta berriemailea:
Luis Maria Arana eta Rosa
Mari Dominguez.*

GANBARA

- Enmarkazioak
- Estiloko markoak
- Laminak
- Arte lanak (margo lanak)

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37

Arte ederretako
materialean
%25-30eko
deskontua

ITURRIOTZ

A R R A S A T E

Etxebizitza-multzoa

*Azken
etxebizitzak eta
lokalak!!*



Eragilea:

**ZERRAJERA
ETXEBIZITZAK, S.L**

Informazioa eta salmenta:

Iturriotz kalea, 35
ARRASATE
Tel.: 943 77 19 67 • 943 77 19 68

*Ametsetako
sukaldeak*



iKERR
SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43

